# EDUCACIÓN PRIMARIA

guía didáctica 3er ciclo

proyecto
diversidad sexual
y nuevas familias

"el reino de cerca"



3er ciclo

premio educación
EMAKUNDE
2005
premio
BERDINTASUNA

Estos materiales didácticos forman parte del proyecto **"Diversidad Sexual y Nuevas familias"** dirigido al alumnado de Educación Primaria.

El proyecto Diversidad Sexual y Nuevas Familias es una apuesta por una educación en la pluralidad, abierta y respetuosa con todas las formas de vivir la afectividad y la sexualidad.

Con estos materiales didácticos se trabajan los contenidos relativos a la homosexualidad, lesbianismo y homoparentalidad.

Fecha: Octubre 2006

2º edición (corregida)

Nº de registro: BI-2897-06

Han participado en la elaboración de estos materiales:
Jesús Mentxaka, Inmaculada Mujika, Ana Ureta y Amparo Villar.

Imprime: Lankopi, S.A.

ORGANIZA:

CENTRO DE ATENCION A GAYS Y LESBIANAS
GAY ETA LESBIANEN ATENZIO ZENTROA

**ALDARTE**

C/ Berastegi, 5 - 5º, dpto: 8 - 9

Metro Abando

48001 Bilbao

Tfno.: 94 423 72 96

aldarte@aldarte.org

www.aldarte.org

berdindu!

lesbiana, gay eta transexualen arretarako euskal zerbitzua
servicio vasco de atención a lesbianas, gays y transexuales

**Servicio Vasco "Berdindu"**

Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales

Gran Vía, 85 - 6ª pta.
Bilbao

Tfno.: 900 840 011
94 403 12 93

berdindu@ej-gv.es

COLABORA:

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA
*Gizarte Ongizateko Zuzendaritza*

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA
*Giza Eskubideen Zuzendaritza*

HEZKUNTZA UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES
*Dirección de Bienestar Social*

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
*Dirección de Derechos Humanos*

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

## Presentación

El proyecto **DIVERSIDAD SEXUAL Y NUEVAS FAMILIAS** tiene como objetivo el que niños y niñas conozcan y aprendan a respetar todas las formas que tenemos mujeres y hombres de vivir la afectividad, la sexualidad y la familia, para que no perciban como algo raro o extraño el que una persona sea gay o lesbiana o tenga dos padres o dos madres.

Es un instrumento para que el alumnado aprenda a convivir con el lesbianismo, la homosexualidad y la homoparentalidad.

El proyecto se compone de los siguientes materiales didácticos:

- DVD con la representación de la obra de títeres “El Reino de Cerca”.
- Cuadernos de trabajo para el alumnado: correspondientes a los tres primeros ciclos de primaria.
- Guías didácticas para el profesorado: una para cada ciclo de primaria.
- Juego de cartas: “7 tipos de familias”.
- Cuento: “Iris y Lila”.
- Guía de sexualidad infantil para orientar a las familias.

## ¿Para qué sirve esta guía didáctica?

Esta guía didáctica tiene como objetivo facilitar el desarrollo y puesta en práctica del proyecto en las aulas del tercer ciclo de primaria. En ella encontrarás:

1. Los objetivos del proyecto para cada actividad.
2. Los contenidos y cuerpo teórico para cada actividad.
3. Las habilidades y destrezas que el alumnado desarrollará.
4. Explicación de cada una de las actividades, sugerencias para su realización y respuestas.

## ¿Cómo es el cuaderno para el alumnado del 3er ciclo de primaria?

El cuaderno de trabajo destinado al tercer ciclo de primaria propone, de la misma forma que los cuadernos para los dos primeros ciclos, conocer la diversidad de orientaciones sexuales y de familias, a través de los diferentes materiales y actividades. Igualmente, ofrece al alumnado la posibilidad de conocer a personajes, hombres y mujeres, famosos por sus valiosas aportaciones a la historia de occidente, que han mantenido relaciones afectivo-sexuales con personas de su mismo sexo.

Finalmente, pretende dar a conocer al alumnado de este ciclo la situación legal de la homosexualidad y el lesbianismo en Europa y la existencia de colectivos y asociaciones que han trabajado en favor de la libertad sexual de estas personas.

Con las actividades que se proponen se trabajarán también, además de actitudes y valores, destrezas y habilidades relacionadas con las áreas de estudio de este ciclo. Se plantea pues, si así se desea, trabajar este cuaderno de una forma interdisciplinar. Estas habilidades y destrezas son las siguientes:

- Lectura y comprensión lectora.
- Habilidades plásticas
- Comunicación y expresión escrita.
- Comunicación  y expresión verbal.
- Consulta de fuentes escritas.
- Trabajo con mapas y gráficas.
- Interpretación de textos
- Consulta de diccionarios
- Cálculo matemático.
- Trabajo con ordenador e Internet.

Para poder realizar las actividades que se proponen en el cuaderno de trabajo no es imprescindible, aunque si conveniente,  haber visto previamente el DVD con la obra de títeres “El Reino de Cerca” o leer el cuento “Iris y Lila”

Las actividades que se proponen son:

**1.-** Guión de “El Reino de Cerca” y cuestionario sobre la obra.

**2.-** ¿Conoces la Historia?

**3.-** Somos iguales y tenemos los mismos derechos: situación legal de gays y lesbianas en Europa.

  **3.1.-** Vamos a conocer el mapa de Europa

  **3.2.-** Algunas noticias sobre este tema

**4.-** ¿Cómo son nuestras familias?

  **4.1.**- Vamos a hacer un gráfico.

  **4.2.-** Trabajando con fotografías

## Presentación de las actividades, objetivos, contenidos y habilidades

### 1.- Guión de "El Reino de Cerca" y cuestionario sobre la obra

**Objetivos:**

- Visibilizar las diversas orientaciones sexuales. Hacer entender al alumnado que hombres y mujeres tenemos diferentes opciones/orientaciones sexuales a la hora de vivir nuestra afectividad y sexualidad.

- Analizar y explicar que la homosexualidad y el lesbianismo no son enfermedades susceptibles de ser curadas.

- Empatizar con las personas que tienen una orientación sexual homosexual.

- Hacer entender que no debemos admitir ni tolerar comportamientos y actitudes intolerantes y violentas hacia personas que se reconocen como homosexuales o pensamos que puedan serlo.

- Fomentar el empoderamiento en las mujeres, su capacidad para ser protagonistas activas de sus propias vidas.

- Fomentar valores de igualdad entre hombres y mujeres.

- Dar respuesta a las necesidades individuales de información y asesoramiento.

**Habilidades:**

- Lectura y comprensión.
- Expresión escrita.
- Expresión y comunicación verbal.
- Habilidades plásticas.

**Actividad y contenido:**

- Representación de la obra " El Reino de Cerca"
- Pequeño cuestionario sobre las actitudes de algunos personajes de la obra.

La representación de la obra se puede abordar desde diversos niveles de complicación, desde la más simple, que consistiría en leer la obra en alto poniendo especial esmero en la entonación y declamación, hasta la más compleja que podemos imaginar, con vestuario, luces, escenario, memorizando...

Hay 17 personajes más el narrador/a que va introduciendo la acción.

Las niñas y los niños podrán comprobar que las protagonistas de esta historia son felices y piden, frente a la intolerancia del príncipe y el conde, respeto y libertad para seguir siéndolo. Verán como dos chicas, con la ayuda de un doctor loco, consiguen vencer a todo un príncipe preocupado tan sólo por sus caprichos. Podrán descubrir igualmente que Iris tiene dos madres, que le quieren y a las que quiere mucho.

A través del pequeño cuestionario se verán sus opiniones sobre la relación entre Iris y Lila, la actitud del príncipe y el conde y el hecho de que Iris tenga dos mamás. Se podrán introducir en el aula las ideas de tolerancia, negociación y aceptación.

Sería bueno abordar una idea mayoritariamente extendida como es la presunción universal de la heterosexualidad. Es decir, creer de antemano que todo el mundo es heterosexual y actuar en consonancia con esa creencia. Podemos intentar establecer un diálogo en los siguientes términos: ¿a un chico le preguntáis si le gusta otro chico? ¿se os ocurre preguntarlo?, ¿a una chica sólo le preguntáis si le gusta un chico?, ¿se os ocurre preguntar si le gusta una chica?.

En diciembre de 1973, la poderosa Asociación Americana de Psiquiatría deploró toda discriminación pública o privada contra los homosexuales en cuestiones de empleo, vivienda,..., y declaró que “no se les debe exigir mayor prueba de capacidad de juicio, estabilidad o fiabilidad que a otras personas”. De esta manera eliminó la homosexualidad como categoría patológica. Más aún, la AAP, urgía a que se aprobara una legislación a nivel estatal y federal que garantizara a la población homosexual las mismas protecciones legales y garantías que a la heterosexual.

En 1989, la International Lesbian and Gay Association (ILGA) levantaba la voz contra la Organización Mundial de la Salud por clasificarles aún como enfermos, y pedía apoyo a Amnistía Internacional. La OMS mantuvo clasificada la homosexualidad como enfermedad mental hasta 1993.

## 2.- ¿Conoces la historia?

**Objetivos:**

- Respetar la diversidad de orientaciones sexuales
- Conocer que a lo largo de la historia de occidente ha habido hombres y mujeres que han tenido relaciones afectivo-sexuales con personas de su mismo sexo.
- Hacer ver que la orientación sexual de cada persona es independiente de sus capacidades.
- Comprender la diversidad de orientaciones sexuales como una manifestación de la riqueza humana.
- Fomentar la conciencia de el derecho a la propia sexualidad sin renuncias ni culpabilidades.

**Habilidades:**

- Trabajo con el ordenador e internet.
- Consulta de fuentes escritas.
- Lectura comprensiva.
- Expresión escrita.

**Actividad y contenido:**

A través de esta actividad, bien porque lo deduzcan bien porque se lo diremos, se darán cuenta de que todos los importantes personajes que aparecen en el cuadro tienen en común el haber tenido relaciones afectivo-sexuales con personas de su mismo sexo. Descubrirán que estas personas fueron admiradas y valiosas en su tiempo y que algunos de sus descubrimientos y aportaciones son todavía, hoy en día, motivo de admiración para nosotros; caerán en la cuenta, por tanto, de que la orientación sexual de cada persona es independiente de sus capacidades.

Se les puede sugerir que consulten en Internet la vida de otros personajes como Marguerite Yourcenar, Rudolf Nureyev, Martina Navratilova... que también han mantenido relaciones afectivo-sexuales con personas de su mismo sexo.

En este sentido, conviene subrayar que hay una tendencia general a suponer que todos los hombres y mujeres importantes del pasado fueron heterosexuales. De hecho, en algunas biografías se silencia un aspecto tan importante de la identidad de las personas como es la orientación sexual.

Las respuestas de este ejercicio son:

Safo, 630-560 a.c., Grecia, Poetisa
Alejandro Magno, 356-323 a.c., Macedonia, emperador
Leonardo Da Vinci, 1452-1519, Italia, pintor, ingeniero, arquitecto
Michelangelo Buonarroti, 1475-1564, Italia, pintor, escultor
Sor Juana Inés de La Cruz, 1651-1695, México, poetisa y santa.
Patricia Highsmith, 1921-1995, Estados Unidos, Escritora.
Marlene Dietrich, 1901-1992, Alemania, Actriz.
Isaac Newton, 1643-1727, Gran Bretaña, Científico.
Isadora Duncan, 1878-1927, Estados Unidos, Bailarina.
Rock Hudson, 1925-1985, Estados Unidos, actor.

## 3.- Somos iguales y tenemos los mismos derechos: situación legal de gays y lesbianas en Europa.

### 3.1 Vamos a conocer el mapa de Europa

**Objetivos:**

- Conocer que gays y lesbianas han vivido hasta hace poco en una situación de marginación e invisibilidad.

- Analizar y explicar la mayor aceptación que tanto la homosexualidad como el lesbianismo tienen hoy en día en Europa.

- Empatizar con las personas que tienen una orientación sexual homosexual.

- Comprender que todas las personas debemos tener los mismos derechos independientemente de nuestra orientación sexual.

- Conocer la situación legal, los derechos que tienen gays y lesbianas en Europa.

**Habilidades:**

- Trabajar con mapas.
- Comprensión.
- Expresión oral.
- Investigación y consulta de fuentes escritas.

**Actividad y contenido:**

En esta actividad conocerán las diferentes situaciones legales en las que vive el colectivo homosexual en Europa, desde la igualdad y equiparación total en derechos individuales y derechos de pareja que se vive en España, Holanda y Bélgica, hasta situaciones de fuerte discriminación como en Rumania, Bulgaria o Rusia. A la vez trabajarán con el mapa de Europa y conocerán algunas de sus capitales.



Conocer la situación legal en Europa puede resultar bastante complicado por dos razones fundamentales:

- Cada país tiene su propia legislación al respecto y no siempre las leyes que redacta cada uno de ellos coinciden en los derechos que se reconocen en otros países a gays y lesbianas (pensiones, adopción, herencias,...). Así, la Ley de Parejas de Portugal difiere de la francesa en los derechos que reconoce a la población gay y lesbiana.

- La legislación de los países europeos en esta materia está en constante cambio, cada día son más los países que van aprobando Leyes de Parejas de Hecho o Leyes de Matrimonio y modificando y ampliando las que ya existen.

Esta es la razón por la que se sugiere al alumnado que indague, con la ayuda de cualquier buscador de internet, sobre esta situación legal tan cambiante. Lo importante no es conocer cual es la verdadera situación pormenorizada de cada país, sino conocer y comentar las diferentes situaciones:

En el momento actual podemos dividir a los países europeos en tres grandes bloques:

- Países con Ley de parejas de hecho (no coincidentes entre sí en los derechos que reconocen): Luxemburgo, Dinamarca, Suecia, Noruega, Alemania, Finlandia, Reino Unido, Portugal, Francia, Hungría. Se reconoce la existencia jurídica de parejas formadas por personas del mismo sexo y se les otorga algunos derechos y obligaciones.

- Países con Ley de matrimonio homosexual: España, Bélgica, Holanda. Equiparan a las parejas homosexuales con las heterosexuales adquiriendo los mismos derechos: herencias, pensiones, adopción, filiación...

- Países que, no habiendo dictado leyes en contra de la población gay-lesbiana, discriminan gravemente a este colectivo y no reconocen ningún derecho a las parejas que forman. Son los siguientes: Rusia, Bulgaria, Rumania, Albania, Grecia...

Se trata también, de hacer un ejercicio de empatía, de situarnos en el lugar de los otros. Podemos abordar al alumnado con preguntas como: ¿si tú tuvieras una orientación sexual homosexual dónde te gustaría vivir?, ¿cómo crees que se sienten en Rumania o Rusia?, ¿qué derechos te gustaría tener?...

## 3.2 Algunas noticias sobre el tema

**Objetivos:**

- Conocer la existencia de colectivos que luchan por sus derechos.
- Comprender que tras muchos años de trabajo los colectivos de gays y lesbianas están alcanzando sus objetivos y la normalización de su orientación sexual.

**Habilidades:**

- Interpretación de textos
- Lectura comprensiva
- Expresión escrita
- Expresión oral
- Consulta de diccionarios.

**Actividad y contenido:**

Estas dos breves noticias que se sugieren como lectura, tienen como protagonistas a los colectivos de gays y lesbianas, que unas veces desde la clandestinidad y otras desde colectivos y plataformas han trabajado y trabajan públicamente en favor de sus derechos.

En la primera noticia se puede leer que los colectivos, exultantes de alegría, recogen el fruto de largos años de trabajo cuando se aprueba en el congreso de diputados la Ley del matrimonio homosexual.

En la segunda noticia podemos leer que se denuncia públicamente que a pesar de los avances en cuanto a la legislación se refiere, todavía este colectivo sigue sufriendo y viviendo situaciones de marginación e intolerancia por parte de mucha gente. Se trata de la manifestación por la libertad sexual de gays, lesbianas y transexuales, que se celebra todos los 28 de junio y, que recuerda la revuelta, que tuvo lugar ese mismo día en Nueva York en el año 1969, en protesta por la actitud homófoba de la policía con los clientes del bar de homosexuales Stonwell Inn.

Se considera la primera manifestación pública que asumía con orgullo ser gay o lesbiana. Por otra parte, se les pide a los alumnos y alumnas que busquen en el diccionario la palabra "homófobo" que aparece en la segunda noticia. Entendemos por homofobia el odio o la aversión obsesiva hacia los homosexuales.

Cuando se les pide que busquen también la palabra "lesbofobia" sabemos que con seguridad no la encontrarán en el diccionario. Se puede reflexionar con ellas y ellos el porqué de esta cuestión; indudablemente, la cuestión del género ha influido a lo largo de la historia para la no existencia y mayor invisibilidad del lesbianismo frente a la homosexualidad masculina. De ahí que el novedoso término lesbofobia, por el momento, no aparezca en los diccionarios.

Podemos animar al alumnado a implicarse más preguntándole cual puede ser su aportación para que no se den situaciones de marginación, qué pueden hacer ellos y ellas para avanzar en tolerancia.

## 4.- ¿Cómo son nuestras familias?

**Objetivos:**

- Abordar con los alumnos y alumnas los conceptos de familia y diversidad como cuestiones íntimamente ligadas.
- Facilitar que el alumnado que vive en familias homoparentales hable con total naturalidad sobre su vida.
- Fomentar actitudes de respeto y tolerancia hacia las familias homoparentales.

**Habilidades:**

- Trabajo con gráficos.
- Cálculo matemático.
- Expresión escrita.
- Expresión oral.

## Actividad y contenido:

En el primer ejercicio los alumnos y alumnas se darán cuenta de que existen familias muy diversas; se trataría de comprender que si las personas somos diversas y plurales también los serán las familias que formamos. Es lógico que la familia se adapte a los deseos y necesidades de las mujeres y hombres que constituimos las estructuras familiares. Así pues, hablar de familia en la actualidad implica mucho más que padres heterosexuales con hijos e hijas biológicos fruto de la concepción "natural".

Como sabemos, ante la posibilidad legal de que parejas formadas por personas del mismo sexo realicen funciones de padres y madres, no son pocas las personas que se han mostrado contrarias al no considerarlas idóneas para la crianza y educación de hijos e hijas. La adopción y maternidad-paternidad de gays y lesbianas suscitan un gran debate profesional y social.

Sin embargo, la pregunta fundamental a hacernos es: ¿qué necesita en realidad un niño o una niña?. Esta pregunta sólo tiene una respuesta: necesitan a su lado adultos que les quieran, les cuiden, protejan y atiendan sus necesidades. En este sentido, el debate social sobre la orientación sexual de padres y madres es irrelevante y sólo interesa a los adultos, alejándose de los verdaderos intereses de los niños y las niñas.

Los gays y las lesbianas han demostrado desde siempre ser adecuadas figuras de apego para los niños y niñas que crían y educan. Esta constatación es un elemento a favor de la idoneidad de las personas homosexuales para ejercer de padres y madres.

En la página web de Aldarte podéis encontrar documentación sobre todos estos temas.

**www.aldarte.org**

- Cuaderno de divulgación."Modelos familiares y cambios sociales: la homoparentalidad a debate".
- Cuaderno de divulgación: "Historia del lesbianismo en occidente".
- Cuaderno de divulgación: "El prejuicio hacia la homosexualidad y el lesbianismo".
- Cuaderno de divulgación: "Lesbianismo y medios de comunicación".

En el **Centro de Atención a Gays y Lesbianas ALDARTE** disponemos de recursos de formación e información, apoyo y orientación tanto para gays, lesbianas y transexuales como para sus familiares, amigos/as y personas de su entorno.

**ALDARTE** ofrece también talleres de formación a los equipos docentes y a los departamentos de orientación de los centros.

Si deseáis organizar alguna actividad tanto para el profesorado como para el alumnado, o realizar alguna consulta, podéis poneros en contacto con **ALDARTE** por teléfono, e-mail o acercándoos al Centro.

La página Web **www.aldarte.org** os puede resultar un instrumento útil de trabajo en el aula.

CENTRO DE ATENCION A GAYS Y LESBIANAS
GAY ETA LESBIANEN ATENZIO ZENTROA

Estamos en:

Berastegi 5-5º Dpto 8 y 9 • 48001 Bilbao
Teléfono **944237296** • e-mail: **aldarte@aldarte.org**

Horario:

Mañanas - de lunes a viernes de 10.00 a 13.00 horas.
Tardes - de lunes a viernes de 17.30 a 21.30 horas.

LEHEN HEZKUNTZA

# gida didaktikoa 3.zikloa

## sexu aniztasuna eta familia berriak proiektua

"hurbil erreinua"



3. zikloa

heziketa
**EMAKUNDE**
saria
2005
**BERDINTASUNA**
saria

Material didaktiko hauek **“SEXU ANIZTASUNA ETA FAMILIA BERRIAK”** izeneko proiektuaren barruan kokatzen dira. Proiektu hori Lehen Hezkuntzako neska-mutilei zuzenduta dago.

Proiektuaren bitartez apustu egiten da aniztasunean oinarritutako hezkuntza irekiaren alde, afektibitate eta sexualitate mota guztiak errespetatuz.

Material didaktiko hauekin “Hurbil Erreinua” izeneko txotxongilo-antzezlanaren DVD bideoan agertzen diren homosexualitate, lesbianismo eta homoparentalitatearen inguruko edukiak lantzen dira.

DATA: 2006ko urria

2. edizioa zuzendatuta

Inskrizio zbkia: BI-2897-06

Material hauen prestaketan parte hartu dute:
Jesús Mentxaka, Inmaculada Mujika, Ana Ureta eta Amparo Villar.

Inprimaketa: Lankopi, S.A.

PROIEKTUAREN ANTOLATZAILEAK:

ALDARTE
CENTRO DE ATENCION A GAYS Y LESBIANAS
GAY ETA LESBIANEN ATENZIO ZENTROA

**ALDARTE**

K/ Berastegi, 5 - 5., dptoa: 8 - 9

Abando metro geltokia

48001 Bilbao

Tfnoa.: 94 423 72 96

aldarte@aldarte.org

www.aldarte.org

berdindu!
lesbiana, gay eta transexualen arretarako euskal zerbitzua
servicio vasco de atención a lesbianas, gays y transexuales

**Servicio Vasco “Berdindu”**

Etxebizitza eta Gizarte Gaieko Saila

Gran Vía, 85 - 6.
Bilbao

Tfnoa.: 900 840 011
94 403 12 93

berdindu@ej-gv.es

DIRU-LAGUNTZAILEAK:

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA
*Gizarte Ongizateko Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES
*Dirección de Bienestar Social*

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA
*Giza Eskubideen Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
*Dirección de Derechos Humanos*

HEZKUNTZA UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

## Aurkezpena

**SEXU ANIZTASUNA ETA FAMILIA BERRIAK** izeneko gizartearen eta hezkuntzaren arloko proiektua 6 eta 12 urte bitarteko haurrentzat egina dago, eta aniztasun-hezkuntzaren alde egiten du, afektibotasuna, sexualitatea eta familia bizitzeko modu guztiak errespetatzen dituen hezkuntza irekiaren alde egin ere.

Ikasleek lesbianismoarekin, homosexualitatearekin eta sexu bereko gurasoen errealitatearekin elkarbizitzen ikasteko tresna da.

Honako material didaktiko hauekin osatu da proiektua:

- "Hurbileko Erresuma" txotxongilo-emanaldia biltzen duen DVDa.
- Ikasleentzako lan-koadernoak: lehen hezkuntzako hasierako hiru zikloetarako.
- Irakasleentzako gida didaktikoak, Lehen Hezkuntzako ziklo bakoitzerako bana.
- Karta-jokoa: "7 familia mota"
- Ipuina: "Iris eta Lila"
- Familiei orientazioa emateko gida.

## Zertarako balio du gida didaktiko honek?

Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasgeletan proiektua martxan jartzeko eta garatzeko lagungarri izan nahi du gida didaktiko honek, irakasleei begira. Gida honetan honako hauek aurki ditzakezu:

1. Proiektuaren helburuak jarduera bakoitzerako.
2. Jarduera bakoitzaren edukia eta gorputz teorikoa.
3. Ikasleek garatuko dituzten gaitasunak eta trebetasunak.
4. Jarduera bakoitzaren azalpena, gauzatzeko iradokizunak eta erantzunak.

## Lehen hezkuntzako 3. zikloko ikasleentzako lan koadernoa nolakoa da?

Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklorako Lan Koadernoan, aurreko bi zikloetako koadernoetan bezalaxe, sexu-orientazioen eta familien aniztasuna ezagutzea proposatzen da, hainbat materialen eta jardueraren bitartez. Halaber, Mendebaldeko historian ekarpen handiak egin dituzten hainbat pertsonaia ezagunen —emakumeak eta gizonak— berri izango dute ikasleek; hain zuzen ere, sexu bereko jendearekin harreman afektibo/sexualak izan dituzten pertsonaien berri.

Azkenik, Europan homosexualitateak eta lesbianismoak bizi duten lege-egoeraren berri emango zaie ziklo honetako ikasleei, eta homosexualen eta lesbianen sexu-askatasunaren alde lan egin izan duten kolektiboak eta elkarteak ere izan badirela jakingo dute.

Proposatzen diren jardueren bitartez, jarrerak eta balioak ez ezik, ziklo honetako ikasketa-arloekin loturiko trebetasunak eta gaitasunak ere landuko dira. Hortaz, nahi izanez gero, diziplinarteko moduan lan egin daiteke koaderno honekin. Hona hemen landuko diren trebetasunak eta gaitasunak:

- Irakurketa eta irakurritakoaren ulermena.
- Gaitasun plastikoak.
- Komunikazioa eta idazmena.
- Komunikazioa eta mintzamena.
- Idatzitako iturriak kontsultatzea.
- Mapekin eta grafikoekin lan egitea.
- Testuak interpretatzea.
- Hiztegiak kontsultatzea.
- Kalkulu matematikoa.
- Ordenagailuarekin eta Internetekin lan egitea.

Lan-koadernoan proposatzen diren jarduerak egiteko, aldez aurretik Hurbileko Erresuma txotxongilo-emanaldia biltzen duen DVDa ikustea edo Iris eta Lila ipuina irakurtzea ez da beharrezkoa, baina bai gomendagarria.

Honako jarduera hauek proposatu dira:

**1.-** Hurbileko Erresuma obraren gidoia eta horri buruzko galderak.

**2.-** Ba al duzu historiaren berri?

**3.-** Berdinak gara eta eskubide berberak ditugu: gay eta lesbianen lege-egoera Europan.

  **3.1.-** Ezagut dezagun Europako mapa.

  **3.2.-** Gai horren inguruko zenbait berri.

**4.-** Nolakoak dira gure familiak?

  **4.1.-** Egin dezagun grafiko bat.

  **4.2.-** Argazkiekin lan eginez.

## Jardueren, helburuen, edukien eta gaitasunen aurkezpena

### 1.- Hurbileko Erresuma obraren gidoia eta horri buruzko galderak

**Helburuak:**

- Sexu-orientazio guztiak agerian uztea. Gure afektibitatea eta sexualitatea bizitzeko garaian, gizonek eta emakumeek hainbat aukera/orientazio ditugula ulertarazi behar diegu ikasleei.

- Honako hau aztertzea eta azaltzea: homosexualitatea ez dela gaixotasuna, eta, beraz, ezin dela sendatu.

- Joera homosexuala dutenekiko enpatia.

- Homosexual direla aitortzen duten edo guk horrela uste dugun jendearekiko jokabide eta jarrera intoleranteak edo bortitzak izatea onartezina dela ulertaraztea.

- Emakumeen ahalduntzeari bultzada ematea, euren bizitzaren protagonista aktibo izateko gaitasuna izan dezaten.

- Emakumeen eta gizonen artean berdintasun-balioak sustatzea.

- Informazioa eta aholkularitza jasotzeko banakako premiak betetzea.

**Gaitasunak:**

- Irakurketa eta ulermena.
- Idazmena.
- Mintzamena eta ahozko komunikazioa.
- Gaitasun plastikoak.

**Jarduera eta edukia:**

- Hurbileko Erresuma obra antzeztea.
- Obrako zenbait pertsonaiaren jarrerari buruzko galdera sorta.

Nahierara antzez daiteke obra; hau da, sinple-sinple guztien artean ozenki irakur daiteke, doinuari eta deklamazioari erreparatuta, edo bestela, gehiago konplika daiteke, mozorrotuta, agertokiaren gainean, esan beharrekoa buruz ikasita, argiekin...

Guztira 17 pertsonaia agertzen dira, eta kontalariak ekintzen sarrerak egiten ditu.

Istorio honetako protagonistak zoriontsu direla konturatuko dira haurrak, eta printzearen eta kondearen intolerantzia ikusita, zoriontsu izaten jarraitzeko errespetua eta askatasuna eskatzen dutela. Ikusiko dute bi neska —ero samarra dagoen doktorearen laguntzarekin— gai direla printze handi bat garaitzeko, printzeak bere gutiziak besterik ez baititu buruan. Irisek bi ama dituela ere jakingo dute, eta biek asko maite dutela Iris, baita Irisek biak ere.

Galdera sortari erantzunda, ikasleek honako hauei buruz dituzten iritziak agertuko dira: Irisen eta Lilaren arteko harremanari buruz, printzearen eta kondearen jarrerari buruz, eta Irisek bi ama izateari buruz. Tolerantziaren, negoziazioaren eta onarpenaren ideiak landu daitezke ikasgelan.

Heterosexualitate-presuntzio unibertsalaren ideia oso zabaldua dagoenez, horren inguruan aritzea ere interesgarria izango da. Heterosexualitate-presuntzio unibertsala honako hau da: jende guztia heterosexuala dela pentsatzea aldez aurretik, eta pentsamolde horren arabera jokatzea. Elkarrizketa sor dezakegu, horrelako galderak eginda: galdetzen al diozue mutil bati beste mutil bat gustuko ote duen? Galdetzea bururatzen al zaizue? Eta neska bati, mutilak soilik atsegin dituen galdetzen al diozue? Beste neska bat gogoko duen galdetzea bururatzen al zaizue?

1973. urteko abenduan, Amerikako Psikiatria Elkarteak (APA) gaitzetsi egin zuen homosexualen kontrako diskriminazio publiko edo pribatu oro, enpleguaren, etxebizitzaren eta abarren arloan, eta honako hau adierazi zuen: “ezin zaie eskatu gainerakoei baino froga gehiago, adimen-gaitasunari, egonkortasunari edo fidagarritasunari dagokionez“. Horrela, homosexualitatea kategoria patologikotik at geratu zen. Eta ez hori bakarrik; estatu- eta federazio-mailako legedi bat onartzeko eskatzen zuen APAk, homosexualei heterosexualen legezko babes eta berme berdinak ziurtatzeko.

1989. urtean, Osasunaren Munduko Erakundeak gaixotzat jotzen zituen oraindik gay eta lesbianak; ILGA Nazioarteko Lesbiana eta Gay Elkartea horren kontra agertu zen, eta Amnesty International erakundeari laguntza eskatu zion. 1993. urtera bitarte eutsi zion OMEk homosexualitatearen sailkapen horri, gaixotasun mentaltzat hartuta.

## 2.- Ba al duzu historiaren berri?

**Helburuak:**

- Orientazio sexualen aniztasuna errespetatzea.
- Mendebaldeko historian, sexu bereko jendearekin harreman afektibo/sexualak izan dituzten gizonak eta emakumeak badirela ezagutzea.
- Norberaren sexu-orientazioak gaitasunekin inolako loturarik ez duela ikusaraztea.
- Orientazio sexualen aniztasuna giza aberastasunaren adierazletzat ulertzea.
- Ezeri uko egin gabe, eta errudun sentitu gabe, norberaren sexualitatea bizitzeko eskubidearen gainean kontzientziatzea.

**Gaitasunak:**

- Ordenagailuarekin eta Internetekin lan egitea.
- Idatzitako iturriak kontsultatzea.
- Irakurritakoa ulertzea
- Idazmena.

**Jarduera eta edukia:**

Jarduera honen bitartez, konturatuko dira taulan agertzen diren pertsonaia garrantzitsu guztiek ezaugarri komun bat dutela: sexu bereko jendearekin harreman afektibo/sexualak izatea. Beren garaian, pertsonaia horiek miretsiak eta garrantzitsuak izan zirela ikusiko dute, eta haien aurkikuntzak eta ekarpenak guk ere miresten ditugula, gaur egun oraindik ere; hortaz, norberaren sexu-orientazioak eta gaitasunek loturarik ez dutela jabetuko dira.

Internet bidez hainbat pertsonaiaren bizitza kontsultatzeko eska diezaiekegu, hala nola Marguerite Yourcenar, Rudolf Nureyev, Martina Navratilova..., horiek ere sexu bereko jendearekin izan baitituzte harreman afektibo/sexualak.

Hari berari jarraiki, honako hau nabarmendu behar dugu: iraganeko gizon eta emakume garrantzitsu guztiak heterosexualak izan zirela pentsatzeko joera dela nagusi. Izan ere, zenbait biografiatan ezkutatu egiten da jendearen nortasunaren alderdi garrantzitsu bat: sexu-orientazioa.

Hona hemen ariketa honen erantzunak:

Safo, K.a. 630-560, Grezia, poeta
Alejandro Magno, K.a. 356-323, Mazedonia, enperadorea
Leonardo Da Vinci, 1452-1519, Italia, pintorea, ingeniaria, arkitektoa
Michelangelo Buonarroti, 1475-1564, Italia, pintorea, eskultorea
Sor Juana Inés de La Cruz, 1651-1695, Mexiko, poeta eta santua.
Patricia Highsmith, 1921-1995, Estatu Batuak, idazlea.
Marlene Dietrich, 1901-1992, Alemania, aktorea.
Isaac Newton, 1643-1727, Britainia Handia, zientzialaria.
Isadora Duncan, 1878-1927, Estatu Batuak, dantzaria.
Rock Hudson, 1925-1985, Estatu Batuak, aktorea.

## 3.- Berdinak gara eta eskubide berberak ditugu: gay eta lesbianen lege-egoera Europan

### 3.1.- Ezagut dezagun Europako mapa

**Helburuak:**

- Orain dela gutxi arte, gay eta lesbianak baztertuta bizi izan direla eta ikusezin egiten zituztela jakitea.
- Gaur egun, Europan homosexualitateak nahiz lesbianismoak onarpen-maila handiagoa dutela aztertzea eta azaltzea.
- Joera homosexuala dutenekiko enpatia.
- Jende guztiak eskubide berdinak izan behar dituela ulertzea, sexu-orientazioa dena delakoa izanik ere.
- Gay eta lesbianek Europan bizi duten lege-egoera eta eskubideak ezagutzea.

**Gaitasunak:**

- Mapekin lan egitea.
- Ulermena.
- Mintzamena.
- Idatzitako iturriak kontsultatzea eta ikertzea.

**Jarduera eta edukia:**

Jarduera honen bitartez, homosexualen kolektiboak Europan bizi dituen lege-egoera guztien berri izango dute: Espainian, Holandan eta Belgikan norbanakoaren eskubideei eta bikote-eskubideei dagokienez berdintasuna eta erabateko parekatzea dute; aldiz, Errumanian, Bulgarian edo Errusian, diskriminazio-egoera tamalgarrian bizi dira. Aldi berean, Europako maparekin lan egingo dute, eta zenbait hiriburu ikasiko dituzte.



Europako lege-egoeraren berri izatea nahikoa zaila izan daiteke, batik bat bi arrazoirengatik:

- Herrialde guztiek legedi ezberdina dute horren inguruan, baina herrialde bakoitzak idazten dituen legeak ez datoz beti bat beste herrialdeetan gay eta lesbianei onartzen zaizkien eskubideekin (pentsioak, adopzioa, oinordetza...). Esaterako, Portugaleko Bikote Legean gay eta lesbianei onartzen zaizkien eskubideak ez dira Frantziakoaren berdinak.

- Gai horren inguruan, Europako herrialdeetako legedia etengabe aldatzen ari da; Izatezko Bikoteen Legeak edo Ezkontza Legeak onartzen ari dira gero eta herrialde gehiagotan, edo bestela, lehendik baziren legeak aldatzen eta zabaltzen.

Horregatik eskatuko diegu ikasleei ikertzeko, Interneteko bilatzaileren bat baliatuta, hainbeste aldatzen den lege-egoera horren gainean. Kontua ez da herrialde bakoitzeko egoera zehatz-mehatz ezagutzea, baizik eta egoera ezberdinen arteko aldeen berri izatea eta horiek komentatzea:

Gaur egun, hiru bloke handitan bereiz ditzakegu Europako herrialdeak:

- Izatezko Bikoteen Legea baduten herrialdeak (onartzen diren eskubideak berdinak ez diren arren): Luxemburgo, Danimarka, Suedia, Norvegia, Alemania, Finlandia, Erresuma Batua, Portugal, Frantzia, Hungaria. Sexu berekoek osatutako bikoteak badirela onartzen da juridikoki, eta zenbait eskubide eta betebehar ematen zaizkie.

- Ezkontza homosexualaren Legea duten herrialdeak: Espainia, Belgika, Holanda. Homosexualen eta heterosexualen ezkontzak parekotzat hartzen ditu, eskubide berdinak aitortuta: oinordetzak, pentsioak, adopzioa, filiazioa...

- Gay/lesbiana kolektiboen aurkako legerik ez duten arren, larriki baztertzen dituzten herrialdeak, eta gay eta lesbianek osatutako bikoteei inolako eskubiderik aitortzen ez dietenak. Honako hauek dira: Errusia, Bulgaria, Errumania, Albania, Grezia...

Enpatia-ariketa bat ere egitea komeni da, besteren tokian jartzea, alegia. Ikasleei honelako galderak egin diezazkiekegu: Zure sexu-orientazioa homosexuala izango balitz, non bizi nahi zenuke? Zure ustez nola sentitu behar dute Errumanian edo Errusian? Zein eskubide izan nahiko zenituzke?...

## 3.2.- Gai horren inguruko zenbait berri

**Helburuak:**

- Eskubideen alde borrokatu behar duten kolektiboak badirela jakitea.
- Urte luzetako lana egin ostean, gay eta lesbianen kolektiboak ezarritako helburuak eta haien sexu-orientazioa normalizatzea lortzen ari direla ulertzea.

**Gaitasunak:**

- Testuak interpretatzea.
- Irakurritakoa ulertzea.
- Idazmena.
- Mintzamena.
- Hiztegiak kontsultatzea.

**Jarduera eta edukia:**

Bi albiste labur proposatu ditugu irakurgai gisa. Gay eta lesbianen kolektiboak dira protagonista; zenbait kasutan, klandestinitatean aritu behar izaten dute; bestetan, aldiz, kolektiboen eta plataformen bitartez, modu publikoan lan egin izan dute eta lan egiten dute eskubideak aldarrikatzeko.

Lehenengo berrian honako hau irakur daiteke: kolektiboak pozez zoratzen daudela, diputatuen kongresuan Ezkontza homosexualaren Legea onartu delako, urte luzetako borrokaren eta lanaren ondorioz.
Bigarrenean, beste hau: legedian aurrera egin den arren, kolektibo horrek bazterketa- eta intolerantzia-egoerak pairatu behar dituela, oraindik ere, jende askoren aldetik, eta egoera hori salatzen da. Urtero, 1969. urtean New Yorken izandako gertakaria gogoratzeko, gay, lesbiana eta transexualen sexu-askatasunaren alde ekainaren 28an egiten den manifestazioa da; 1969an, Stonwell Inn homosexualen tabernako bezeroekiko poliziak izan zuen jarrera homofoboarengatik protesta eginez, matxinada izan zen ekainaren 28an.

Gay edo lesbiana izatea harrotasunez aldarrikatzen zuen lehenengo manifestaziotzat jotzen da. Bestalde, ikasleei eskatuko diegu hiztegian bilatzeko "homofobo" hitza, bigarren albistean agertzen dena. Homosexualekiko gorroto edo nazka obsesiboa da homofobia.

Halaber, "lesbofobia" hitza bilatzeko ere eskatuko diegu, baina ziur badakigu ez dutela hiztegian topatuko. Hori zergatik izan daitekeen hausnar dezakegu ikasleekin batera; zalantzarik gabe, generoaren gaiak eragin handia izan du historian lesbianismoa gizonezkoen homosexualitatea baino gehiago ezkutatzeko eta bazela ere ukatzeko. Horregatik ez da agertzen, oraingoz, hiztegietan lesbofobia hitz berria.

Horretaz gain, gehiago inplikatzera anima ditzakegu ikasleak, galderak eginez: haiek zer egin dezaketen bazterketa-egoerarik sor ez dadin, tolerantzian aurrera egiteko zer egon daitekeen haien esku...

## 4.- Nolakoak dira gure familiak?

**Helburuak:**

- Familiaren eta aniztasunaren kontzeptuak lantzea ikasleekin, elkarri atxikitako gaiak direla kontuan izanik.

- Sexu bereko gurasoak dituzten familietan bizi diren ikasleei beren bizimoduaz naturaltasunez hitz egiteko aukera erraztea.

- Sexu bereko gurasoak dituzten familiekiko errespetuzko eta tolerantziazko jarrerak sustatzea.

**Gaitasunak:**

- Grafikoekin lan egitea.

- Kalkulu matematikoa.

- Idazmena.

- Mintzamena.

**Jarduera eta edukia:**

Lehenengo ariketan, askotariko familiak badirela jabetuko dira ikasleak; beraz, jendea anitza eta askotarikoa baldin bada, jendeak osatzen dituen familiak ere halakoxeak izango direla ulertzea da kontua. Logikoa denez, familia-egiturak osatzen ditugun gizonen eta emakumeen nahietara eta premietara egokitzen da familia. Horrela bada, gaur egun familiaz hitz egiten denean, sorkuntza “naturalez” izandako seme-alaba biologikoak dituzten guraso heterosexualek osaturiko familia baino askoz ere gehiago hartzen da aintzat.

Jakin badakigu, legearen arabera, sexu bereko lagunek osaturiko bikoteek guraso-eginkizunetan jarduteko aukera badutela, baina errealitate horren aurrean, jende askok aurkako jarrera izan du, bikote horiek seme-alabak hazi eta hezteko egokiak ez direlakoan baitaude. Gay eta lesbianek haurrak adoptatzeko aukerak eta aitaren/amaren eginkizunetan jarduteak eztabaida bizia pizten du profesionalen artean nahiz gizartean.

Hala ere, funtsean, honako galdera hau egin beharko genioke geure buruari: zer behar du benetan haur batek? Galdera horrek erantzun bakarra du: maite, zaindu, babestu eta bere premiei erantzungo dieten helduak behar ditu haurrak bere ondoan. Hari berari jarraiki, aiten eta amen sexu-orientazioaren gaineko gizarte-eztabaida hutsala da eta helduei soilik interesatzen zaie, haurren benetako interesetatik urrun geratzen dela.

Hazten eta hezten dituzten haurrentzako atxikimendu-irudi egokiak direla erakutsi izan dute beti gay eta lesbianak. Eta hori funtsezko elementua da homosexualak aita eta ama izateko egokitzat hartzearen alde.

Aldarteren web-orrian topa dezakezue gai horien guztien inguruko dokumentazioa.

**www.aldarte.org**

- Dibulgazio-koadernoa: “Modelos familiares y cambios sociales: la homoparentalidad a debate”

- Dibulgazio-koadernoa: “Historia del lesbianismo en occidente“

- Dibulgazio-koadernoa: “El prejuicio hacia la homosexualidad y el lesbianismo”

- Dibulgazio-koadernoa: “Lesbianismo y medios de comunicación”

**ALDARTEn**, gay eta lesbianentzako atentzio zentrua; formazio, informazio, laguntza eta orientaziorako baliabideak ditugu gay, lesbiana zein transexualeentzako eta euren familia, lagun eta ingurukoentzako.

**ALDARTEk** irakasle-taldeentzako zein orientabide departamentuentzako formazio tailerrak eskaintzen ditu.

Ekintzaren bat antolatu nahi baldin baduzue, irakasle edo ikasleentzako, edo kontsultaren bat egin, **ALDARTErekin** harremanetan jarri telefonoz, e-mail bidez edo zentrura hurbilduz.

**ALDARTEren** web orria **www.aldarte.org** gelako lanean tresna erabilgarria izan daiteke.

ALDARTE

CENTRO DE ATENCION A GAYS Y LESBIANAS
GAY ETA LESBIANEN ATENZIO ZENTROA

Hemen aurkituko gaituzu:
Berastegi kalea, 5-5. 8 eta 9 depertamentuak • 48001 Bilbao
Telefonoa **944237296** • e-mail: **aldarte@aldarte.org**

Ordutegia:
Goizean - astelehenetik-ostiralera: 10.00-13.00
Arratsaldean - astelehenetik-ostiralera: 17.30-21.30